

## 9. KOSTU-EGITURA:

### **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

Proiektuko kostuaren kudeaketak plangintzarako beharrezko jarduera guztiak sartzen ditu, hala nola; estimua, planaren kostu-erreferentzia, eta kostuen kontrolaren lorpena, proiektua gure aurrekontuaren barrutik atera ez dadin. Gure kasuan ikusi dugu gure proiektuan kosturik garrantzitsuenak bi izan direla. Alde batetik fabrikazio-kostuak izan dira, hauek; amaitutako produktuetako lehengaien transformaziorako beharrezkoak direnak. Nahiz eta materialak hornitzaileak eginda ematen dizkigutela, guk pertsonalki produktua muntatu beharko dugu eta gastu batzuk ekarriko dizkigu. Material hori guk aukeratutakoa material eta prezio honekoak izango dira, horrela gure proiektua kalitatezkoa izango da eta prezio onean salduko dugu. Horrek guri dakarkigu bezeroek dituzten helburuak asetuko ditugula eta gure negozioa optimizatuko dela. Beste eta azkenengo kosturik garrantzitsuenak; banaketa-kostuak dira. Banaketarako eta produktuen merkaturatzerako egiten direnak bereziki. Guk gure proiektua jada amaituta daukagunean transporte enpresa bat behar dugu gure fabrika edo enpresatik supermerkatuetara garraiatzeko proiektua. Banaketa kostua gure produktuaren prezioa igoarazi egingo du.

**Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen duela eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela.**

Gure proiektuko kostu egiturak honako hauek izan dira:

- **KOSTU FINKOAK** : Enpresaren ekonomian, kostu finkoak enpresako ekoizpen- mailarekin edo negozio-bolumenarekin loturik ez dauden kostu totalen zatia dira. Gure kasuan lantegiko alokairua kostu finkoa da, gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti

berdina ordaindu behar baitugulako. Kostu finkoak ez direnak kostu aldakorrek dira. Epe luzera, ordea, kostu guztiak aldakorrek dira, enpresak bere jarduera jarraituz gero kostu finkoak sortarazten dituzten elementuak berritzeko erabakia hartu beharko baitelako.

- **KOSTU ALDAGARRIAK:** Enpresaren ekonomian, kostu aldakorra enpresaren iharduera-maila edo ekoizpenarekin batera gehitzen den horri deritzogu.

- **ESKALA-EKONOMIA:** ekoizpen-faktore guztiak proportzio berdin batean gehitzean, ekoizpena proportzio berean igotzen den adierazten dute. Batera igotako ekoizpen-faktoreen proportzio berean igotzen bada ekoizpena, eskala-errendimendu konstanteak daude; adibidez, ekoizpen-faktore guztiak bikoiztean, ekoizpena ere bikoizten bada. Ekoizpena ekoizpen-faktoreen igoera baino gehiago igotzen bada, eskala-errendimendu gorakorrek daudela edo eskala-ekonomiak gertatzen direla esaten da. Eskala-errendimendu beherakorrek edo eskala-desekonomiak daudela esaten da ekoizpena ekoizpen-faktoreak baino proportzio txikiagoan igotzen direnean. Nabarmendu behar da eskala-errendimenduak aztertzean ekoizpen-faktore guzti guztiak igotzen direla batera. Faktore mota bat konstante mantendu (gehienetan, kapital finkoa) eta bestea aldatzen denean, ekoizpenaren bilakaerak errendimendu beherakorren legeari jarraiki izaten da, zeinaren arabera ekoizpenaren gehikuntzak edo produktibitatea gero eta txikiagoa izango den.

Ekoizpen-prozesu batean eskala-ekonomiak sortzeko zenbait arrazoi daude, makinak eta bestelako kapital finkoaren erabilera-maila hobezinera heldu ez izana. Ostera, eskala-desekonomiak sortzeko arrazoi bat, ekoizpena maila bat gainditzean, ekoizpen prozesua kudeatzeko beharrezko administrazio eta antolakuntzaren zailtasuna izaten da.

**HEDAPEN EKONOMIKOAK:** Enpresak, sortzen den unetik, behar finantzarioak dakartza. Enpresal aktibitate edo prozesu orok, lehengaiak, giza baliabideak, makineria eta prozesuan sorturiko beste edozein gastu ordaintzeko baliabide finantzarioen beharra dauka. Orokorrean Finantza funtzioaren edukina bi azpifuntziotan banatzen da: funtzio finantzarioa zentzu hertsian, hau da, kapitala lortzearena alde batetik eta inbertsio funtzioa bestalde.

Bi funtzioen ondorioak enpresaren balantzean isladatzen dira. Bertan agertzen dira inbertsioak, alde batetik, eta finantza iturriak, bestetik. Hau da, dirua nondik lortu den (iturriak, pasiboa) eta zertan aplikatu den (inbertsioak, aktiboa).

Enpresaren egitura ekonomiko-finantzarioa, beraz, Egoera Balantzearen ikerketan oinarritzen da. Enpresaren **AKTIBOAN** enpresak egindako inbertsioak biltzen dira. Inbertsioak finantzatzeko erari dagokionez, enpresaren Egoera Balantzearen **PASIBOAN** enpresak bere inbertsioak egiteko lortzen dituen finantza baliabideak biltzen dira.